

EMAKUMEONTZAT AUKERA BERDINTASUNA

PREKARIETATEAREN KONTRA 35 ORDU eta 1.200€

Martxoak 8 dituen honetan, zortzi baino hamaika arrazoi ditugu emakumeok berriz ere kalera atera eta gure ahotsa ozen azalarazteko. Izatez, oraindik ere ugariak dira emakumeok gure bizitzaren esparru ezberdinetan pairatu beharreko diskriminazioak, eta hainbatetan aldarrikatutako aukera berdintasunetik urrun jarraitzen dugu.

Egun indarrean den sistemak, esparru pribatuan egiten diren etxeko lanen zein zaintza lanen erantzukizuna emakumeon gain kokatzen jarraitzen du. Hori bai, sistemaren biziraupenerako ezinbestekoak diren lan horiei inolako aitortzarik eman gabe, jendarteari zein ekonomiari egiten dioten ekarpenaren aurrean ezkusiarena eginez. Asko dira eredu horren baitan eroso sentitzen diren gizonezkoak ere, dituzten pribilegioei heldu eta erantzunkidetasunean aurrera urratsak emateko prest ez daudenak. Ardura horiek nagusiki emakumeen gain egotea ez da bidezkoa, eta gainera, lan mundurako sarbidea oztopatu egiten digute emakumeoi; lan merkatuan sartzea lortzen dugunean ere, erabat baldintzatuta gaude.

Egungo sistemarentzat emakumeak lan munduan egotea subsidiarioa da, bigarren mailakoa, gure lana gizonezkoen lanaren osagarri gisa ulertzen baita. Hala, aitortzarik txikieneko eta lan baldintzarik prekarioeneko enplegura bideratzen gaituzte. Emakumeok prekarietatera eta pobrezia kondemnatu nahi gaituzte, menpeko nahi gaituzte, gure burujabetza ekonomikorako eskubidea ukatzen digute, baina emakumeok ez dugu gure borrokan etsiko.

Hierarkia harremanetan baino errespetuzko harreman justuago batzuetan oinarritutako jendarte eta sistema baten alde lan egiten jarraituko dugu, lanaren ikuspegi integrala barneratuz, lan guztien aitortza egin eta egungo sistemak ezartzen duen sexuen arabera lan banaketa gaindituko duen lan harreman eredu berria eraikitzeko. **Subjektu gara, geure buruaren jabe gara eta eskubideak ditugu. Dagozkigun eskubideen alde borrokatzen jarraituko dugu. Prekarietatea gainditzeko, lanaren eta aberastasunaren banaketan aurrera egiteko, emakumeok 35 orduko lanaldiaren eta 1.200 euroko gutxieneko soldataren adarrikapenak gureak egiten ditugu.**


35 ORDU

Emakumeon lana gizonen lanaren osagarri gisa ulertzeak emakumeak modu orokor batean lanaldi partzialetara bideratzea ekarri du. Datuak esanguratsuak dira: lanaldi partzialean diharduten langileen ia %78 emakumeak dira, eta ez eurek hala erabakita, sistemak hala ezarri dielako baizik. Emakume askok, hilabete bukaerara iristeko, lanaldi partzialeko hainbat lan egitea beste aukerarik ez dute. Horregatik 35 orduko lanaldiaren aldarrikapenaren enplegu banaketari heldu nahi dugu, emakumeoi 35 orduko lanaldia bermatuko digun enplegu duina aldarrikatzen dugu.

1.200 EURO

Oraindik ere emakume eta gizonen soldaten arteko berdintasuna lortzetik urrun gaude. Soldaten arteko arrakala nabaria da, INEk kaleratutako azken datuen arabera, EAEn emakumeen urteko soldata (azken erreferentzia 2013koa) gordinaren batz bestekoa gizonezkoena baino 7.625 euro gutxiagokoa izan zen, eta Nafarroaren kasuan 8.484 euro gutxiagokoa. Horrek esan nahi du Hego Euskal Herrian emakumeen soldata %35 baino gehiago igo beharko litzatekeela gizonen soldatarekin parekatzeko.

Soldata arrakala handia izateaz gain, emakumeok lan munduan ditugun lan baldintzak prekarioak dira: derri gorrezko lanaldi partzialak, lan merkatu araututik kanpo geratzen diren lanak egitera behartuak egotea etab. Ondorioz, emakumeak 1.200 euroetara heltzen ez diren lansariak jasotzea ohikoa bilakatu da. Emakumeen kasuan pobrezia erreala %6,1ean ezartzen da eta gizonen kasuan %5,5ean. Egoera honen aurrea, emakumeok ere Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata 1.200 eurokoa izateko borrokatuko dugu, prekarietatearen aurka, aukera berdintasuna aldarrikatuz.



MARTXOAK
EMAKUME LANGILEEN NAZIOARTEKO EGUNA



IGUALDAD DE OPORTUNIDADES PARA LAS MUJERES

CONTRA LA PRECARIEDAD 35 HORAS Y 1.200€

Este 8 de Marzo las mujeres tenemos más de ocho razones para salir nuevamente a la calle y hacernos oír más fuerte que nunca. Son muchas las discriminaciones que padecemos las mujeres en diferentes ámbitos de nuestra vida, y todavía estamos muy lejos de la igualdad de oportunidades que reivindicamos.

El actual sistema sigue imponiéndonos la responsabilidad las tareas de ámbito doméstico y de cuidados a las mujeres. Eso sí, sin dar valor alguno a esas labores imprescindibles para la subsistencia del sistema, obviando la aportación que hace a la sociedad y a la economía. Son muchos los hombres que se sienten cómodos con este modelo, hombres que se aferran a sus privilegios y no están dispuestos a dar pasos para avanzar en la corresponsabilidad. Que esas responsabilidades recaigan principalmente en las mujeres además de no ser justo, nos limita el acceso al mundo laboral, y cuando logramos entrar, nos condicionan totalmente.

Para el actual sistema el hecho de que las mujeres formemos parte del mundo laboral es subsidiario, de segunda categoría, ya que nuestro trabajo se entiende como algo complementario al de los hombres. Así, se nos conduce a los empleos menos valorados y con condiciones más precarias. Quieren condenarnos a la precariedad y la pobreza, nos quieren sumisas, nos niegan nuestro derecho a la soberanía económica, pero las mujeres no vamos a cesar en nuestra lucha.

Continuaremos trabajando por una sociedad y un sistema basado en unas relaciones de respeto más justas, y construyendo un nuevo modelo de relaciones laborales que integrando una visión global del trabajo acabe con la actual división sexual del trabajo que impone el actual sistema. **Las mujeres somos sujetos de derechos y continuaremos en la lucha de los derechos que nos corresponden.** Para superar la precariedad, para avanzar en el reparto del trabajo y la riqueza, las mujeres hacemos nuestras las reivindicaciones de 35 horas de jornada y los 1.200 euros de salario mínimo.

35 HORAS

Entender el trabajo de la mujer como complemento al de los hombres supone que generalmente las mujeres son conducidas a jornadas parciales. Los datos son significativos: casi el 78% de los y las trabajadoras con jornadas parciales son mujeres, y no por que ellas así lo hallan decidido, sino porque el sistema así lo impone. Muchas mujeres, para llegar a fin de mes, no tienen más remedio que realizar diferentes trabajos a jornada parcial. Por ello con la reivindicación de las 35 horas queremos incidir también en la necesidad del reparto de trabajo, **exigimos un empleo digno que nos garantice a las mujeres una jornada de 35 horas.**

1.200 EUROS

Todavía estamos lejos de conseguir la igualdad de sueldos entre hombres y mujeres. La diferencia salarial es importante, según los últimos datos publicados por el INE (la última referencia es del 2013), en la CAV la media del sueldo bruto de las mujeres es 7.625 euros más bajo que el de los hombres, y en el caso de Nafarroa esa cifra sube a 8.484 euros. Eso quiere decir que en Hego Euskal Herria habría que subir un 35% el sueldo de las mujeres para equipararlo con el de los hombres. Además de ser grande la brecha salarial, las condiciones laborales que padecemos son precarias: jornadas parciales impuestas, obligación de trabajar fuera del mercado reglado, etc. Esto hace que hoy día sea algo habitual que los salarios de las mujeres no lleguen a 1.200 euros. La pobreza real se cifra en un 6,1% en las mujeres y en el caso de los hombres en un 5,5%. Ante esta situación, **las mujeres también lucharemos por un Salario Mínimo Interprofesional de 1.200 euros, contra la precariedad, reivindicando la igualdad de oportunidades.**

